

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Alkate-lehendakaritzak ebatzitako eskumen eskuordetzeak

Bat etorri 1889ko uztailaren 24ko Errege Dekretuak, Kode Zibila argitaratzen duenak, 51.2 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoaren araudia onartzen duenak, 43. eta 44. artikuluetan ezarritakoarekin, argitara ematen dira Amurrioko Udaleko Alkate-lehendakaritzak ebatzitako eskumen eskuordetzeak.

2018ko martxoaren 9ko 18/072 Dekretuaren bitartez, eskumen eskuordetze hau egin da: oinarri hartuta 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.b) artikuluan ezarritakoa, artikulua berarekin lotuta, arau horren 3. paragrafoa, toki erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoaren araudiaren 41.1, 43.1 eta 44. artikulua, Estibaliz Sasiain Furundarena zinegotziari eskuordetzea alkate gisa dagozkidan ahalmenak, 48/17-1 espedienteko ezkontza zibilaren baimentzaile izan dadin.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Amurrio, 2018ko martxoaren 9a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA